



Maria Markotegi Sariak 2015

komikia • poesia
narrazio laburra

LH 5-6, DBH 1-4,
Batzilergoak eta Erdi mailako HZ

oinarriak

Parte hartzaileak: Lehiaketa honetan bizitokia edo ikastetxea Sakanan duten ikasleek har dezakete parte.

Sailak: Lehiaketak hiru sail izanen ditu: narrazio laburra, poesia eta komikia.

Kategoriak: Lehiaketaren sail bakoitzean honako kategorio hauek bereiziko dira:

- LHko 5. eta 6. mailetako ikasleena.
- DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleena.
- DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleena.
- Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena.

Lanak aurkezteko epea 2015eko martxoaren 31n bukatuko da, eguerdiko 15:00etan. Lehiaketan parte hartzeko lanak ikastetxeek aurkeztu ahal izanen dituzte ikasleen izenean. Lanak Sakanako Mankomunitateko erregistroan aurkeztuko dira, honako helbide honetan:

Mank
sakan

Sakanako Mankomunitatea
Uriz 32
31830 Lakuntza
T: 948 464840 • euskara1@sakana-mank.com

Lanak aurkezteko modua: Lan guztiak goituzen batez izenpetuko dira. Aparteko gutun-azal batean egilearen datuak sartuko dira (izen-abizenak, nortasun agiria zenbakia, helbidea, telefona, e-posta, ikastetxea, maila eta adina) orri batean idatzirik. Gutun-azalaren kanpoko aldean garbi adierazi behar dira honako hauek: lanaren izenburua, egilearen izen goitia, saila eta kategorioa.

Maria Markotegi Sariak 2015

Baldintzak:

- Lanak originalak, aurrez saritu gabeak, argitaratu gabeak eta euskaraz sortuak izanen dira.
- Gaia Librea izanen da.
- Ez dira bertso-paperak ametituko.
- Lanek ondoko luzera izanen dute: olerkietan 14 lerro gutxienez eta 40 gehienez; komikietan orrialde bat gutxienez eta 5 gehienez; eta narrazio laburretan LHko 5. eta 6. mailetako ikasleek orrialde bat gutxienez eta 3 gehienez, DBHko ikasleek 2 orrialde gutxienez eta 5 gehienez eta Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleek 3 orrialde gutxienez eta 8 gehienez.
- Literatur lanak ordenagailuz idatzirik aurkeztuko dira, Arial letra mota erabiliko da eta 12 puntuko hizki-tamaina.
- Komikiak zuri-beltzean edo koloretan aurkeztuko dira, Din A4 tamainan. Ordenagailuz edo eskuz egin daitezke.
- Lanak bakarkakoak izanen dira. Ez dira taldekako lanak onartuko.
- Ikasle bakoitzak gehienez ere lan bana aurkez dezake sail bakoitzean.

Sariak: Aurkezten diren lan guztien egileek oroigarria jasoko dute. Guztira hogeita lau sari izanen dira, sail bakoitzean zortzi.

maila	komikia	poesia	narrazio laburra
L.H. 5-6	1.saria 50€ 2.saria 40€	1.saria 50€ 2.saria 40€	1.saria 50€ 2.saria 40€
D.B.H. 1-2	1.saria 70€ 2.saria 60€	1.saria 70€ 2.saria 60€	1.saria 70€ 2.saria 60€
D.B.H. 3-4	1.saria 90€ 2.saria 80€	1.saria 90€ 2.saria 80€	1.saria 90€ 2.saria 80€
Batzilergoak eta Erdi mailako H.Z.	1.saria 110€ 2.saria 100€	1.saria 110€ 2.saria 100€	1.saria 110€ 2.saria 100€

Maria Markotegi Sariak 2015

oinarriak

Sari banaketa: Sari banaketa ekitaldi publiko batean egingen da.

Argitalpena: Sakanako Mankomunitatek Lehiaketara aurkeztutako lanak argitaratzeko eskubidea izango du, paperean zein webgunean, betiere egilearen izena adieraziz.

Epaimahaia: Epaimahaiko kideak Sakanako Mankomunitateko Lehendakariak izendatuko ditu. Epaimahaia irakaskuntzan eta euskal kulturaren nor diren lau kidek eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko teknikari batek osatuko dute. Azken honek idazkari lanak egingen ditu. Aurkeztutako lanek gutxieneko mailarik ez badute, sariak eman gabe utzi ahal izango dira. Era berean, sariak ex aequo moduan banatu ahal izanen dira lan batzuen artean. Epaimahaiaren erabakia apelazina izanen da.

Mank
sakan